

# HERNANI kronika

2004 urtea  
Abenduak 24  
Ostirala  
Alea: 1331  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)

## Inmigranteek euskeraz ikasteko ikastaroa antolatu dute AMHER, AEK eta Udalak

■ Etorkinentzat prestatutako 60 orduko programa berezia da ■ Dagoeneko munduko txoko askotako 17 pertsonek eman dute izena ■ Matrikula, 10 euro ■ Informazio gehiago, 943-557879.

AMHER Elkarte multikulturalak, AEK-k eta Udalak ikastaro berezia antolatu dute etorkinek euskeraz ikasteko. Oinarrizko ikastaroa da eta oso prezio moduzkoan. Kanpotik datozenak Hernanin integratzeko pausoak ematea da iniziatica honen azken helburua.


Proiektu honen bultzatzaileek diotenez, "Hernanin % 50ek daki euskeraz hitz egiten. Bertan bizi eta integratu nahi duenak euskera bereganatzen badu, oso pauso garrantzitsua emango du integrazio bide horretan".

AMHER, AEK eta Udalak uste dute "hizkuntzak - eta kultura guztiak - bertako eta kanpoko jendearen ekarpenetan aberasten" direla, eta "hartze eta emate" horretan kokatzen dute integrazioa. "Eta hortik sortzen den indarrak eragina izango du herriko bizitza sozial, kultural eta ekonomikoan", bultzatzaileen esanetan. □



Orain dela gutxi jardunaldi multikulturalak egin dira Hernanin.

Ikastaroa otsailean hasiko da eta dagoeneko 17 pertsona apuntatu daude. Nabarmeneko da jatorri askotako jendea animatu dela. □



Ibai Artola txapelduna.

### Ibai Artola gaztea txapeldun ehizean

IBAI Artola gazteak irabazi du aurten Hernaniko ehiztari txapelketa, 15 pieza bota eta 1.516 punturekin. Txapelketa bi txandetara jokatzen da eta Artola izan da erregularrena, bietan bigarren egin baitzuen. Ibai Artolaren atzetik Gerardo Beraza gelditu zen sailkapen orokorrean. Berazak bigarren txanda bikaina egin eta irabazi egin zuen 10 pieza botata. Denera 1.214 puntu atera zituen, Artolak baino 302 gutxiago. Hirugarren postua Asier Arrizabalagarentzat izan da.

Arrizabalagak aurrena egin zuen lehenengo txandan 10 pieza botata, baina, bigarrenean 2 bakarrik bota zituen eta denera 1.208 puntu atera ditu. Laugarren, Juan Mari Otaegi izan da, 1.112 punturekin.

Ehiza txapelketa Txan-txangorrik antolatzen du eta Uxoko-erreka eta Epelerreka mendietan jokatzen da. Sariak urtarrilean banatuko dira, horretarako antolatutako ekitaldian. Lehenengo postuan gelditu direnak zonako txapelketara joango dira. □

### Martindegin Egaña eta Irazu bertsotan

URTARRILAREN 8an, larunbata, bertsos afaria antolatu dute Martindegin Andoni Egaña eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin. Urtez urte, txandaka auzoko sagardotegietan antolatzen dute bertsosaioa eta aurten Sarasolan dute egiteko. Txartelak urtarriaren 5era arte daude salgai Oialume tabernan, 25 eurotan. Auzo elkartea antolatzen du bertsos afaria, aurten goa seigarren urtea da.

### 'Horra, horra gure Olentzero!!'

GAUR abiatu omen da Olentzero erregaloak uzteria eta Hernanitik pasatzeko da egunean zehar, etxeetako tximiniak nola dauden ikustera. 13:30etan Ereñotzuko plazatik aterako da auzoan barrena buelta egiteko. 15:00etan, beriz, Dobera Euskara Elkarteko olentzero baserriz baserri joango da, Gudarien Plazatik aterata, eta trikitilari eta bertsolariek lagunduta.

Arratsaldeko 15:30etan, Zaharra Egoitzara joango da San Joan Konpartsa eta Ttarla dantza taldeko olentzero eta arratsaldeko 18:00etan Ongi Etorria egingo diote Gudarien plazan. Herrian barrena ibiliko da txistulari, trikitilari eta Musika Eskolako Bandak lagunduta eta bukaeran, opariak banatuko ditu plazan. Hauez gain, herriko hainbat talde ere aterako dira kalez kale. □

### Manifestazioa gaur

ASKATASUNAK antolatuta urte-roko manifestazioa egingo da gaur presoen askatasuna eskatzeko. 20:00etan aterako da plazatik.

### Elkartasun denda

ELKARTASUN denda dago atzo eta gaur Kale Nagusian, plaza ondoan, goiz eta arratsaldez Askatasunak antolatuta. □

### 'DJ Abiba' bihar Oialumen

OIALUME dantzaleku festa dago bihar, larunbata, 20:00etan hasita, DJ Abibarekin. □

### Kiroldegia itxita

EGUBERRIAK direla eta kiroldegia itxita egongo da gaur, bihar, abenduaren 31ean, urtarriaren 1ean eta urtarriaren 6an. □

### Bihar Eguberri eguna, ez da Kronikarik izango

TELEBISTAK - BIDEOAK - BIDEOKAMARAK - ETXE TRESNAK

**ANEKO**

Merkatuko marka onenak  
prezio onenean,  
beti bezala,  
zure etxetik gertu.

35 urte zure zerbitzura

Eguberri jai zoriontsuak  
eta urte berri on!

Izpizua kalea 21 - Tel. 943 55 03 81 - 20120 HERNANI

**JTXASPE**

Arrandegia

Eguberri jai zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu!

2 XESTOREN  
ZOZKETAKO ZENBAKIAK  
1.) 5.807      2.) 7.603

Antziola 5 - 943 330 365 - 653 741 097

**IRUBIDE JATETXEA**

Enkarguzko janak  
Gordetako jantokia

EGUBERRI JAI ZORIONTSUAK  
eta URTE BERRI ON!

Eguneko menua  
Asteburuko menua  
Karta

IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - © 943 552 480



Karobi elkarteko sarituak eta elkarteko arduradunak, sari banaketa ondorenean.

## Mariano Aznar-Patxi Regalado Tuteko txapeldun Karobin

TUTE txapelketa jokatu berri da Karobi elkartean eta Mariano Aznar eta Patxi Regaladok irabazi dute. Bigarren, Mi-

guel Arroyo eta Miguel Jimenez gelditu dira; hirugarren, Carlos Hernando eta Manolo Gonzalez; eta laugarren, Peti

Jimenez eta Juan Valhondo. Sari banaketa 4garren urtzeneko afarian egin zuten Karobin, giro ederrean. □

## Bertso jaialdia igandean Sandiusterrin

IGANDEAN bertso jaialdia dago Sandiusterrin, 19:30etan aurrera, Bertso Lataren barruan. Maialen Lujanbio, Unai Itu-

riaga, Estitxu Eizagirre, Aitor Mendiluze, Iker Osa eta Joxe Agirre izango dira kantuan.

Bestalde, ostegunean Zu-

mardi jatetxeen egingo den bertso jarri afarirako sarrerak salgai daude, Aralar, Kitto eta Irrintzi tabernetan, 20 eurotan.

## JASOTA BEZALA

### Maite zaitugu, Karmele

Alaitasunetik tristurara urrets txikia dago, ilusiotik etsipenera dagoenaren antzekoa. Atearen bestaldean etxeok zain ditugula jakiteak zurrara berria sortzen du, sentimenduen halako eztanda bat. Hiru geunden astelehen hartan atearen alde hetonetan, baina irribarrak beldur bihurtu ziren esaldi bakarrean: "Gerra, su familia no ha venido". Handik hiru ordutara betazpi eta masailak gorri-gorri zituen, malkoek erasanak. Lehenengo besarkadak. 42. istripu larria izan dela irakurri dugu egunkarietako lerrobutuan, baina guretzat oso ezberdina izan da. Gure Ekainen ama zelako. Gure Ekainen aita delako. Asteroko izua berritu zaigulako eta

ondoko zeldan bere intziri eta oihuak entzun ditugulako.

Hutsa dago orain bere zelda, baina horman itsatsiak ditu oraindik argazkiak. Ez dakigu noiz ekaniko diguten berriro, noiz giltzartuko duten bere oroitzapenekin, azken egunetako bizi penekin, argazkiekin. Iragana oldartuko zaio eta datozen hilabeteetako bisitak gozatu eta madarikatuko ditu aldi berean, amatxo ez delako etorriko. Azaroan galdu zuen amona ere, badeatzpadako espeta aldiaren urtzenetan. Argazkiak ditu orain horma ustean.

Nekez uler daiteke kalean bidaiek sortzen diguten beldurra. Larunbat goizeko errekuentoak iratzarten gaituenean "gaur izan

daiteke" pentsatzegun berriari duintasunez begiratzea. Egunkariak gorde eta izarak aldatu dizkio. Bere lekuak jarri gara denok egun hauetan eta errepideko metal hotsak entzun ditugu amets gaiztoetan. Ekainen lekuak jarri ditugu geure buruak eta beldurra gordina dastatu dugu. Aski ongi dakigu hurrengoa edonor izan daitekeela, erronka zaila dugula gure eskubideen defentsan eta zuon elkartsun, konpromezu eta maitasuna ordaintzera ez garela sekula helduko. Muxu eta besarkadarik goxoeña senide eta lagun guztioi. Maite zaituztegu.

Pedro Cano Pittu eta Gari

Arruarte

Alcalá Meco-ko isolamenduan

**EGUBERRI ON!**

**ILEA PAÍNDEGIA**  
Arantxa eta Ixtar  
Larrañaga

Nafar Kalea 14  
Hernani 20.120  
943 33 24 41

**AITAN - ETXE**  
**TABERNA**  
Eguberri jai zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46  
Hernani

**Yone**  
boutique  
Kale Nagusia 63

Aurtengo  
Gabonetan  
PREZIO BEREZIAK  
%20  
deskontua

**LEOKA**  
**TABERNA**  
Kardaberaz 3, HERNANI

Euskal Presoa  
Euskal Herria

Eguberri jai  
zoriontsuak  
opa dizkizuegu!

## HITZ BITAN

### ✓ ZINEA BITERIN

**'Bailamos' eta 'Glup' pelikulak igandea.** Igandera arte ez da zinerik izango Biteri kultur etxean. Igandean, *Bailamos* pelikula botako dute helduentzat, 19:30etan. Gaztetxoentzat, berriz, *Glup* pelikula botako dute, arratsaldeko 17:00etan.

### ✓ TXISTULARI BANDA

**Kontzertua igandean arkupetan.** Datorren igandean kontzertua emango du Txistulari Bandak Udaletxeko arkupetan, eguerdiko 13:00etatik aurrera.

### ✓ ERREMONTREA

**Altuna-Etxabe/Ezkurra Badiola gaur.** Binakako txapelketaren barruan, Altuna II-Etxabek Ezkurra-Badiolaren kontra jokatuko dute gaur semifinala Galarretan, 16:00etan hasiko den jaialdiaren barruan. Bihar, bestalde 17:00etan hasiko da jaialdia eta igandean ez da jaialdirik izango. □

## I URTEURRENA

### Loreto Urreaga Sasiain

2003ko abenduaren 7an hil zen.



Loreto gure artetik joan zela urtea bete den honean, senitartekoek oroirgarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik eskerrik asko.

Urteurrenako meza, igandean, abenduak 26, goizeko 11:00etan euskaraz eta 12:30etan erderaz, San Joan Bataiatzailea parrokian.

## I URTEURRENA

### Juana Lopez Sanzberro

2003ko abenduaren 16an hil zen 75 urte zituela.



Juana gure artetik joan zela urtea bete den honean, senitartekoek oroirgarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak. Aldez aurretik eskerrik asko.

Urteurrenako meza, igandea, abenduak 26, goizeko 11:00etan euskaraz eta 12:30etan erderaz, San Joan Bataiatzailea parrokian.

## ZERBITZUAK

### TELEFONOAK

■ Taxiak: 943 550093

■ Udalzaingoa:

943 333288

■ DYA: 943 464622

■ Anbulutorioa:

943 006666

■ Jokalari anonimoak:

943 331103

■ Alkoholiko anonimoak:

943 331103

### FARMAZIAK

#### OSTIRALA

■ Egunez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892

■ Gauez: Gomez Justel  
Kale Nagusia 14  
☎ 943 554892

#### LARUNBATA

■ Egunez: Bulnes  
Florida auzoa  
☎ 943 557738

■ Gauez: Diaz  
Andoain. Nagusia 19  
☎ 943 592057

## IRAGARKI MERKEAK

ñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebla, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

### APERDERO TABERNA

HERNANI

Kardaberaz kalea 4,  
HERNANI  
943 33 04 14

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

## Telemar

Eguberritako katalogo  
berria badaukagu, eta  
beste hainbat eskaintza  
ere bai, zure oparentzat!

80 € tik

Eguberri zoriontsuak  
opatzeko modurik onena

TIEN 21 Telemar

39 tikk TSMS

Telemar-Itxastele - Elkano 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 00